

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak hizkuntza politikoan lankidetzan mantentzeko nahia berretsi dute

*Duela urtebete hasitako lankidetzarekin jarraitzeko dokumentu bat sinatu dute gaur Ana Ollok, Bingen Zupiriak eta Beñat Arrabitek*

Ostirala, 2018.eko ekainak 15

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak gaur berretsi dute hizkuntza politika gaitan lankidetzan aritzeko konpromisoa. Iazko uztailen [sinatu zuten hitzarmenaren](#) urteurrena betetzear dagoela, hiru erakundeek urte osoan zehar



Ezker eskuin: Arrabit, Olló eta Zupiria.

elkarlanean sustatutako proiektuen berri eman dute Donostian egindako agerpen publiko batean. Adierazi dutenez, 20 proiektu eta lan-ildo inguru jorratu dituzte urte osoan zehar, eta bide emankor horri eusteko borondate argia azpimarratu dute. Horretarako, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Ana Olló Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Administrazioekiko Harremanetako kontseilariak eta Beñat Arrabit Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) presidentek iazko konpromisoari jarraipena ematen dion [aurten go eranskina](#) sinatu dute gaur, Hiruko Itun honek hizkuntza politika eraginkor bat bideratzen laguntzen jarrai dezan.

Sinadura ekitaldian, Ana Olló kontseilariak, hiru erakundeen elkarlana eraginkorra izan dadin egindako esfortzua azpimarratu du: "Urtebete daramagu jada lankidetzan, ondo antolaturiko elkarlan batean murgildurik. Denbora honetan guztian zehar, gai izan gara interesak elkarri ezagutarazteko, lanean elkarrekin aritzeko eta ezagutza, jakituria eta esperientziak elkarrekin partekatzeko. Gaurko eranskina, hain zuzen, horren adierazlerik argiena da. Euskara balore bezala ikusteko gai izan gara, hiru lurraldeak aberasten dituen zerbait bezala".

Zupiria sailburuak, bestalde, elkarlan honen eraginkortasuna nabarmendu du: "Iaz azpimarratu genuen bezala, elkarlan hau erabat naturala da. Euskararen lurralde osoan hizkuntza politika kudeatzeko ardura dugu Hiruko Itunaren atzean gauden hiru erakundeok, arduragabekeria litzateke bizkarra emanda lan egitea. Hitzarmena sinatu

eta urtebetera lankidetza hau oso eraginkorra suertatu dela esan dezakegu. Proiektu zehatzak sustatu dira eta informazioa trukatzeko bideak hobetu ditugu, beti ere herritarren eta euskararen mesedetan. Aurretik elkarlan zehatzak egon badira ere, lehen aldiz era sistematikoan ari gara lanean elkarrekin eta babes ofizial batekin”.

Beñat Arrabit EEPko presidentek azaldu du erakundeek erakutsi dutela "posible dela" elkarlanean aritzea proiektu ezberdinak aurrera ateratzeko: "Erakutsi dugu posible dela elkarrekin lan egitea, Inkesta Soziolinguistikoa, EAS edo Eskola Futura proiektuak martxan jartzeko. Eta demostratu dugu, baita ere, gai garela indarrak batzeko Europatik finantzabideak lortzeko".

### **Etorkizuna eta ‘Hiruko Ituna’ marka**

Hiruko Itunari esker, orain urtebete ireki zen bideari jarraipena emango zaio aurten ere, urteko programak ezartzen duen eranskinaren bidez. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak gaur sinatu duten hitzarmenak ahalbidetuko du aurten aztertu diren hainbat gai datozen hilabeteotan gauzatzea, bai eta proiektu berriak bultzatzea ere. Hortaz, elkarlan honen helburua denboran irautea da, kontrakoak ez bailuke zentzurik izango lortzen ari dena ikusita.

Irauteko konpromiso horren erakusgarri da hiru erakundeek lankidetza hau islatzeko sortu duten marka: ‘Hiruko Ituna’.